

# 1. ZENBAKIAK ETA KOLOREAK LORENTXOREN SARRERAKO GUTUNA

Kaixo, lagunak:

Zer moduz zaudete? Gustura zabiltzate euskarako eskoletan?

Ni ederto nabil hemen. Azkenaldian, nahiko eguraldi eskasa egiten duenez, ez nabil hain lanpetuta. Horregatik, zuentzako lantxo bat prestatzen ibili naiz.

Zuetako batzuek ezagutuko dituzue koloreak eta zenbakiak, baina beste batzuek ez. Jolas batzuk prestatu ditut eta baita fitxa batzuk ere.

Bidalitakoarekin oso ondo pasatzea espero dut.

Besarkada handi bat eta izango duzue nire berru.

